



TXOSTENAK

1. Ekonomia eta finantza txostena.
2. Aurrekontu egonkortasunaren finantza iraunkortasunaren eta gastu araua betetzeari buruzko txostena: 2019. Urteko aurrekontu onarpena.

1. EKONOMIA ETA FINANTZA TXOSTENA

1.1. ARAU ESPARRUA

- Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legea.
- 21/2003 Foru Arauak, abenduaren 19koak, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundeen Aurrekontuari buruzkoak, 6. 3 atalean, honakoa dio:

“Aurrekontu orokorrean 1. eta 2. idatz- zatietan aipatutako agiriak ez ezik ondoko hauek ere egon behar dira: e) Ekonomia-finantzazko txostena; bertan sarreraren eta aurreikusitako kreditu eragiketen ebaluaziorako erabilitako oinarriak azaldu behar dira, eskatuko diren betebeharrei eta zerbitzuen funtzionamendu gastuei aurre egiteko kredituak aski direla frogatu behar da, hau da, aurrekontua orekatuta dagoela.

Txostenean, gainera, udalak konpromiso- kredituak finantzatzeko nahikoa baliabide dituen ere aztertu behar da, eta aztertu ere aparteko atal batean”.

1.2. AURREKONTU OROKORRAREN SARREREN EGOERA

1.2.1. AURKEZPENA

Alkate-Lehendakariak 2019ko ekitaldiko Aurrekontu Orokorra (4.428.634,51 euro) eta bere barne dauden aurrekontuak aurkeztu ditu:

Udal Aurrekontua, 3.748.634,51 eurokoa dena.

Guardi Gain,S.A. sozietate publikoaren Aurrekontua, 680.000 €-koa dena.

Diru sarreraren aurrekontua burutzeko kontuan hartu den irizpideak arrazionaltasun eta zuhurtziarenak izan dira, aurreikuspenak onartuko diren eskubideekin bat etor daitezten, onartuko direnak azken horiek baino altuagoak izan arren.

Hemen aztertzen ari garen aurrekontuko diru-sarreraren aurreikuspenak zehazteko, oinarri hauek erabili dira:

- Aurreko ekitaldietan emandako diru laguntzak eta transferentziak.
- Diru bilketaren emaitzak



1.2.2. AURREKONTU OKOROKARREN SARRERAK ETA KONPARAKETAK

Idiazabalgo Udalaren aurrekontu orokorren sarreren konparaketa

AURREKONTU PROPIOA / PRESUPUESTO PROPIO			
2019. urtea		2018. urtea	
GASTUEN AURREKONTUA KAPITULUKA		GASTUEN AURREKONTUA KAPITULUKA	
1. Kapitulumua Pertsonal-gastuak:	928.307,21	1. Kapitulumua Pertsonal-gastuak:	860.191,47
2. Kapitulumua Ondasun arrunt eta zerbitzuetan gastuak	2.016.303,66	2. Kapitulumua Ondasun arrunt eta zerbitzuetan gastuak	1.851.799,58
3.Kapitulumua Finantza Gastuak:	8.810,00	3.Kapitulumua Finantza Gastuak:	10.670,00
4.Kapitulumua Transferentzia arruntak	548.870,21	4.Kapitulumua Transferentzia arruntak:	465.860,95
6. Kapitulumua:	174.487,00	6. Kapitulumua: Inbertsio errealak:	167.730,48
8. Kapitulumua Finantza pasiboak:	3.000,00	8. Kapitulumua Finantza pasiboak:	0,00
9.Finantza pasiboak	68.856,43	9. Kapitulumua Finantza pasiboak:	67.000,00
GUZTIRA	3.748,634,51	GUZTIRA	3.423.252,48
SARREREN AURREKONTUA KAPITULUKA		SARREREN AURREKONTUA KAPITULUKA	
1. Kapitulumua: Zuzeneko zergak:	841.000,00	1. Kapitulumua: Zuzeneko zergak:	840.525,00
2. Kapitulumua: Zeharkako zergak:	20.000,00	2. Kapitulumua: Zeharkako zergak:	15.000,00
3.Kapitulumua: Tasak eta bestelako sarrerak	647.483,51	3.Kapitulumua: Tasak eta bestelako sarrerak:	525.818,00
4. Kapitulumua Transferentzia arruntak:	2.173.699,00	4. Kapitulumua Transferentzia arruntak:	1.979.027,00
5. Kapitulumua: Ondarezko sarrerak:	1.401,00	5. Kapitulumua: Ondarezko sarrerak:	901,00
7. Kapitulumua: Kapitalezko transferentziak	62.051,00	7.Kapitulumua:Kapitalezko transferentziak:	61.981,48
8. Kapitulumua: Finantza aktiboak:	3.000,00		
GUZTIRA	3.748.634,51	GUZTIRA	3.423.252,48



GUARDI GAIN, S.A.-REN AURREKONTUA / PRESUPUESTO DE GUARDI GAIN, S.A.			
2019. urtea		2018. urtea	
GASTUEN AURREKONTUA KAPITULUKA		GASTUEN AURREKONTUA KAPITULUKA	
2. Kapituluua Ondasun arrunt eta zerbitzuetan gastuak	30.000,00	2. Kapituluua Ondasun arrunt eta zerbitzuetan gastuak	28.000,00
8. Kapituluua Finantza pasiboak:	650.000,00	8. Kapituluua Finantza pasiboak:	573.000,00
GUZTIRA	680.000,00	GUZTIRA	601.000,00
SARREREN AURREKONTUA KAPITULUKA		SARREREN AURREKONTUA KAPITULUKA	
5. Kapituluua: Ondarezko sarrerak:		5. Kapituluua: Ondarezko sarrerak:	1.000
6. Kapituluua: Inbertsio errealen besterengatzea	680.000,00	6. Kapituluua: Inbertsio errealen besterengatzea	600.000,00
GUZTIRA	680.000,00	GUZTIRA	601.000,00

AURREKONTU BATERATUA			
2019. urtea		2018. urtea	
GASTUEN AURREKONTUA KAPITULUKA		GASTUEN AURREKONTUA KAPITULUKA	
1. Kapituluua Pertsonal-gastuak:	928.307,21	1. Kapituluua Pertsonal-gastuak:	860.191,47
2. Kapituluua Ondasun arrunt eta zerbitzuetan gastuak	2.046.303,66	2. Kapituluua Ondasun arrunt eta zerbitzuetan gastuak	1.879.799,58
3. Kapituluua Finantza Gastuak:	8.810,00	3. Kapituluua Finantza Gastuak:	10.670,00
4. Kapituluua Transferentzia arruntak	548.870,21	4. Kapituluua Transferentzia arruntak:	465.860,95
6. Kapituluua: Inbertsio errealak	174.487,00	6. Kapituluua: Inbertsio errealak:	167.730,48
8. Kapituluua Finantza pasiboak:	653.000,00	8. Kapituluua Finantza pasiboak:	573.000,00
9. Finantza pasiboak	68.856,43	9. Kapituluua Finantza pasiboak:	67.000,00



GUZTIRA	4.428.634,51	GUZTIRA	4.024.252,48
SARREREN AURREKONTUA KAPITULUKA		SARREREN AURREKONTUA KAPITULUKA	
1. Kapituluua: Zuzeneko zergak:	841.000,00	1. Kapituluua: Zuzeneko zergak:	840.525,00
2. Kapituluua: Zeharkako zergak:	20.000,00	2. Kapituluua: Zeharkako zergak:	15.000,00
3.Kapituluua: Tasak eta bestelako sarrerak	647.483,51	3.Kapituluua: Tasak eta bestelako sarrerak:	525.818,00
4. Kapituluua Transferentzia arruntak:	2.173.699,00	4. Kapituluua Transferentzia arruntak:	1.979.027,00
5. Kapituluua: Ondarezko sarrerak:	1.401,00	5. Kapituluua: Ondarezko sarrerak:	1.901,00
6. Kapituluua: Inbertsio errealen besterengatzea	680.000,00	6. Kapituluua: Inbertsio errealen besterengatzea	600.000,00
7. Kapituluua: Kapitalezko transferentziak	62.051,00	7.Kapituluua:Kapitalezko transferentziak:	61.981,48
8. Kapituluua: Finantza aktiboak:	3.000,00		
GUZTIRA	4.428.634,51	GUZTIRA	4.024.252,48

Aldea %9,51ekoa da. Sarreretan aurreikusten da Itsasondo, Legorreta eta Zaldibiako udalek egin beharreko ekarpena (musika-irakaskuntza zerbitzua finantzatzeko (146.000 euro) eta zerbitzu horretatik udalek kobratuko duen prezio publikoa (56.000) eta Foru Funtzaren igoera, diru-bilketatik datorren igoera jasotzen (1.555.922,00 eurotik 1.596.997 eurora), beste zerbitzu batzuen sarrerak (kirol zerbitzuak), isunak eta Jarduera Ekonomikoaren zergaren bilketaren igoera besteak beste.

1.3. KONPROMISO KREDITUEN FINANTZAKETA

Konpromiso kredituen igoera zenbait urtetarako izaera izan eta ekitaldian konprometitu daitezkeen gastu multzoaz osaturik dago, eta horiek onartzeak ezarritako baldintzetan formalizatzeko baimena emango du.

Konpromiso kredituen igoerak, horietako bakoitzerako, zenbateko osoa eta gauzatzeko aurreikusitako ekitaldiak adieraziko ditu.

Etorkizuneko ekitaldi bakoitzerako indarrean egongo diren konpromiso-kredituen zenbatekoa metatua ezin izango da likidatutako azken ekitaldiko eragiketa arruntengatik baliabideen %25 baino handiagoa izan.

Kreditu horiek erakundearen aurrekontuen eranskin batean agertuko dira.

Konpromiso kredituen egoeran ez dira honako hauek agertuko:



- Langileei dagozkien gastuak
- Finantza kargak
- Ondasun higiezinaren alokairuak
- Izaera iraunkorra duten gastuak
- Segidako traktuko gastuak

Ekitaldi batean betetzea aurreikusitako konpromiso kredituak ekitaldi horretako aurrekontu horretan agertuko dira, ordainketa-kreditu gisa.

21/2003 Foru Arauaren 22.2 artikulua xedatutako muga (etorkizuneko ekitaldi bakoitzerako indarreko konpromiso-kredituen zenbateko metatua ezin da izan erakundearen likidatutako azken ekitaldiko eragiketa arrunten ziozko baliabideen %25 baino gehiago) betetzen da.

Ez dago aurreikusita hainbat urtetarako izaera duen gasturik. Diru-laguntzen Plan Estrategikoa 2019 urtekoa da (ez beste urte batzuetarako) eta Inbertsioen eranskidean ez dago aurreikusita halakorik.

1.4. ESKATUTAKO BETEBEHARREI ETA ZERBITZU FUNTZIONAMENDU GASTUEI AURRE EGITEKO KREDITUEN ASKITASUNA ETA OREKA. FINANTZAKETAREN BEHAR GARBIA

Aurrekontuan derrigorrezko gastuei aurre egiteko behar diren kreditu gehienak (ez guztiak) jarriko dira. Diru sarrerak aurreikusi dira zehaztua eta arrazionaltasunaren irizpideak erabiliz, eta gastuak aurreikusi dira Idiazabalgo Udalaren teknikariek adierazitako beharrak kontuan harturik, dauden eta aurreikusten diren kontratazioei zein dauden eta aurreikusten zerbitzuei arreta emateko eta beharrezkoak diren gastu-programak abian jartzeko.

Hauek dira, besteak beste, beharrezko izaera duten zerbitzu emateen gastuak, langileenak, bulego material eta dependentzienak; entitateari egotzitako zerbitzuak ordaintzeko zuzenduriko gastuak, aurrez zehaztutako konpromisoetatik datozen gastuak.

1.5. ERAGIKETA ARRUNTEN EMAITZA

Sarreraren egoeran azaltzen den kreditu eragiketaren zenbatekoa inbertsio gastuen guztizkoaren eta ondoren zehazten diren baliabideen baturaren arteko diferentziatik ateratzen da: eragiketa arruntengatik soberakina (diru-sarreraren 1, 2, 3, 4 eta 5 kapituluaren eta gastuen 1, 2, 3, 4 eta 9 kapituluaren arteko diferentzia).



UDAL AURREKONTUA	
ERAGIKETAARRUNTEN EMAITZA	
KONTZEPTUA	2019
DIRU SARRERA ARRUNTAK	3.683.717,51
GASTU ARRUNTAK	3.502.291,08
ERAGIKETAARRUNTENGATIKO AURREZKI GORDINA	181.426,43
ZORRAREN AMORTIZAZIOA	68.856,43
ERAGIKETAARRUNTENGATIKO AURREZKI GARBIA	112.570,00

GUARDI GAIN S.A AURREKONTUA	
ERAGIKETAARRUNTEN EMAITZA	
KONTZEPTUA	2019
DIRU SARRERA ARRUNTAK	0,00
GASTU ARRUNTAK	30.000
ERAGIKETAARRUNTENGATIKO AURREZKI GORDINA	(30.000)
ZORRAREN AMORTIZAZIOA	0,00
ERAGIKETAARRUNTENGATIKO AURREZKI GARBIA	(30.000)

AURREKONTU BATERATUA	
ERAGIKETAARRUNTEN EMAITZA	
KONTZEPTUA	2019
DIRU SARRERA ARRUNTAK	3.683. 717,51
GASTU ARRUNTAK	3.532.291,08
ERAGIKETAARRUNTENGATIKO AURREZKI GORDINA	151. 426,43
ZORRAREN AMORTIZAZIOA	68.856,43
ERAGIKETAARRUNTENGATIKO AURREZKI GARBIA	82.570



Aztertzen ari den aurrekontu proiektuak betetzen du 21/2003 Foru Arauak eskatutako aurrekontuaren finantza-orekaren printzipioa, hau da, eragiketa arruntengatiko diru sarrerek estaltzen dituzte eragiketa arruntengatiko gastuak gehi zorpetzeagatiko amortizazio-gastua (azken hau ez dago). Hortaz, esan dezakegu txosten honek egiten dituen behaketak alde batera utzita, Aurrekontuak ez duela hasierako defizitik (diru-sarrerek gastuak estaltzen dituzte).

Idiazabalen, 2018ko abenduaren 2an

Idazkari- Kontu hartzaileak



2.- AURREKONTU EGONKORTASUNAREN, FINANTZA IRAUNKORTASUNAREN ETA GASTU ARAUA BETETZEARI BURUZKO TXOSTENA: 2019. URTEKO AURREKONTU ONARPENA

2.1.ARAUBIDEA

- 2/2012 Lege Organikoa, apirilaren 27koa, Aurrekontu Egonkortasunari eta Finantza Iraunkortasunari buruzkoa (AEFILO).
- 1463/2007 Errege Dekretua, azaroaren 2koa, Aurrekontuaren Egonkortasunari buruzko abenduaren 12ko 18/2001 Legea garatzeko araudia onesten duena.
- Urriaren 1eko HAP/2015/2012 Ministerioaren Agindua, AEFILOk aurreikusitako informazio horniduraren betebeharrak garatzen dituena.
- 1/2013 Foru Araua, otsailaren 8koa, Gipuzkoako toki entitateen aurrekontu egonkortasunaren eta finantza iraunkortasunaren alorretan finantza tutoretzaren eskumena garatzen duena.
- Gipuzkoako toki entitateen kontabilitatearen arau esparrua ezartzen duen abenduaren 15eko 86/2015 Foru Dekretua.
- 32/2018 Foru Dekretua, abenduaren 27koa, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Tokiko Sektore Publikoko entitateen barne kontrolaren araubide juridikoa erregulatzen duena eta Gipuzkoako toki entitateen kontabilitatearen arau esparrua ezartzen duen abenduaren 15eko 86/2015 Foru Dekretua aldatzen duena.
- Diputatuen Kontseiluaren Akordioa, 2018ko azaroaren 20koa, Gipuzkoako toki entitateek jarraitu beharreko erregelak 2019rako aurrekontuak prestatu, onartu eta gauzatzeko onartzen dituen jarraibidea onartzen duena
- Kontabilitate Nazionalean defizita, kalkulatzeko liburua, tokiko erakundeei egokitutakoa, Estatuko Administrazioako Kontuhartzailletza Orokorrak argitaratutakoa, Ekonomia eta Ogasuneko Ministerioa.
- AEFILOren 12. artikulua gastuaren araua zehazteko gida, tokiko erakundeentzat.

2.2.GAIAREN AZTERKETA

1) Foru Arauaren 1.2.a) artikuluko entitateak (administrazio izaera dutenak): Idiazabalgo Udala

Helburuak betetzeari buruzko egiaztapena

A) Aurrekontuen egonkortasuna: Aurrekontu proiektuak ez du betetzen defizit helburua, izan ere, 83.080 euroko defizita du, (SEC) Europako Kontu Sistemaren arabera. Kalkulu hori egin da 1. eta 7. kapituluaren arteko dirusarreretatik 1. eta 7. kapituluaren arteko gastuak kenduz egoki iritzitako doiketak egin ondoren. Hori guztia termino kontsolidatueta.



EGONKORTASUNAREN HELBURUA

1/7 SARRERAK 3.745.768,51

1/7 GASTUAK 3.676.778

Finantzaketa ahalmena: 68.990,43

Betetzen du

B) Finantza iraunkortasuna: 2019rako ezarritako helburua magnitude hori % 72 baino txikiagoa izatea da. Idiazabalgo Udalaren zor biziaren maila: %12, 78koa da.

Betetzen du

C) Gastuaren araua: 2019rako ezarritako helburua gastu konputagarriaren bariazioa % 2,70 baino txikiagoa izatea da.

GASTU KONPUTAGARRIAREN BARIAZIOA

a1 2017ko gastu ez finantzarioa (1. kapitulutik 7.era) 3.446.506,75

a2 SEC doiketak:

a3 2017ko interesak:7.353,29

a4 Finantzaketa lotua duen gastua 2017an 576.008,46

a5 Araudian eta kudeaketan egindako aldaketen eragina 0,00

2017ko gastu konputagarria 2.863.145,00

b1 2019ko aurrekontu onarpenaren gastu ez finantzarioa (1. kapitulutik 7.era) 3.676.778,08

b2 SEC doiketak

b3 2019ko interesak 8.810,00

b4 Finantzaketa lotua duen gastua 2019an: 611.753,00

b5 Araudian eta kudeaketan egindako aldaketen eragina 0,00

2019ko gastu konputagarria 3.056.215,08

Gastu konputagarriaren bariazioa (portzentajea) (% 6,74)



Ez du betetzen. Likidazioan egoera hori berretsiko balitz, toki entitate hau behartuta legoke plan ekonomiko finantzieroa onartzera. Plan hori Udalbatzari aurkeztu beharko zaio hilabeteko epean. likidazioaren espedientea onarzen denetik kontaktzen hasita.

Idiazabalen, 2018ko abenduaren 2an.

Idazkari Kontu-hartzaileak